

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko urriaren 2ko erabakiaren laburpena: berrogeita hamar langile baino gutxiago dituzten Vitoria-Gasteizko enpresetako enplegua sustatzeko laguntza ekonomikoen udal programaren 2020ko deialdia onestea

BDNS (Identif.): 527190

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehen. Onuradunak

Enpresa txikiak, forma juridikoa edozein izanik ere, ondasun-erkidegoak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak barne, baldin eta egoitza Vitoria-Gasteizen badute eta beren jarduera ekonomikoa bertako lantoki batean burutzen, berrogeita hamar langile baino gutxiago badituzte, Covid-19ak sortutako krisiak eragin diela egiaztatzen badute, eta mota hauetakoren batetan sartzen badira:

1. mota: 2020ko martxoaren 14aren aurretik zeuden lan-kontratuak lan-baldintza berberekin edo hobeeekin kontratuaren iraupena, soldata, lanaldi-portzentajea, gutxienez 6 hilabetez mantentzen dituzten enpresak, 2020ko ekainaren 21etik aurrera. Kontratua etenda egon bada, etenda egon den denbora gehituko zaie sei hilabetei.

2. mota: 2020ko martxoaren 14az geroztik, aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzen dituzten enpresak. Gutxienez 12 hilabetez mantendu beharko da kontratu mugagabea. Kontratua etenda egon bada, etenda egon den denbora gehituko zaie hamabi hilabetei.

Bi motetan, gutxienez ehuneko 50eko lanaldiko kontratuetarako bakarrik emango da dirulaguntza.

Bigarrena. Xedea

Covid-19ak eragindako krisiak ukitutako enpresetako lan-kontratuak mantentzen edo hobetzen, eta kontratazio mugagabea sustatzen laguntzea, Vitoria-Gasteizko udalerrian.

Hirugarrena. Dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak

Laburpen honetako lehen ataleko lehen eta bigarren motetan azaldutakoak.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Laugarrena. Oinarriak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2020ko dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia), eta 2020ko urriaren 2an, berriz, 50 langile baino gutxiago dituzten Vitoria-Gasteizko enpresetako enplegua mantentzeko laguntza ekonomikoen 2020ko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Bosgarrena. Zenbatekoa

Zuzkidura: 200.000,00 euro, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0823.2411.489.67 partidaren kontura Enplegu-egonkortasunerako laguntzak.

Gehieneko laguntza:

1. mota: 1.500,00 euro, lanaldi osoarekin mantentzen den kontratu bakoitzeko. Enpresa bakoitzeko gehienez bi laguntza.

2. mota: 4.000,00 euro, lanaldi osoko kontratu mugagabe bihurtzen den aldi baterako kontratu bakoitzeko. Enpresa bakoitzeko laguntza bakarra.

Bi motetan:

- Lanaldi partzialen kasuan, lanaldiarekiko proportzionala izango da laguntza.
- Dirulaguntza jaso lezakeen gutxieneko lanaldia ehuneko 50ekoa da.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2020ko azaroaren 6ra arte.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 5ean

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
IGNACIO CEPEDA CRESPO*